## II ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### Udalak

#### IRURAIZ-GAUNA

390

**Hasierako onarpena ematea Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantza aldatzeari.**

Udalbatzak, 2011ko azaroaren 30eko osoko bilkuran, Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga arautzen duen ordenantzaren aldatzea erabaki zuen.

Toki Ogasunak arautzen dituen 41/1989 Foru Arauak, uztailaren 19koak, 16. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, espedientea hogeita hamar egunez egongo da jendaurrean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek espedientea aztertu eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak eta iradokizunak aurkez ditzaten. Erabaki honen aurkako erreklamaziorik aurkeztu ezean, hasierako onarpen hori behin betiko onarpen bihurtuko da.

Azilu, 2012ko urtarrilaren 19a.– Alkatea, FERNANDO PÉREZ DE ONRAITA ORTIZ.

#### SAMANIEGO

388

**Kultur etxeko udal taberna alokatzeko, prozedura ireki bidezko lizitazioa (esleipenerako zenbait irizpide).**

Udalbatzak, 2012ko urtarrilaren 20ko osoko bilkuran, udalaren kultur etxeko udal taberna alokatzeko, prozedura ireki bidezko kontratazio (esleipenerako zenbait irizpide) espedientea onartu zuen. Hona hemen horretarako baldintzak:

PROZEDURAREN HELBURUA. Kultur etxeko udal taberna (Eskolak kalea, 2) alokatzea.

LIZITAZIO OINARRIA. Gutxienez, 800 euro hileko.

KONTRATUAREN IRAUPENA. Kontratuak, izenpetzen denetik aurrera, bi urteko iraupena izango du, beste bi urtez luza daitekeena.

BERMEAK. Ez da behin-behineko bermerik aurkeztu beharko eta behin betiko bermea 3.000 euro izango da.

ESPEDIENTEA ESKURAGAI. Udal idazkaritzan, bulego orduetan.

ESKAINTZAK AURKEZTEA: Eskaintzak udal idazkaritzan aurkeztuko dira goizeko 10:00etatik 13:00etara. Horretarako, hamabost egun izango dira, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko litzateke.

ESKAINTZAK IREKITZEA. B gutun azala (agiri orokorrak) udaletxean irekiko da, jendaurreko ekitaldian, eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondorengo lehen egun balioduneko 12:00etan.

A gutun azala (eskaintza ekonomikoa) B gutun azala irekiko den egun eta toki berean irekiko da, baina 13:00etan.

EPAIMAHAIA OSATZEN DUTEN PERTSONAK. Alkatea edo hark eskuordetzen duen udaleko kidea eta udaleko idazkaria edo hark eskuordetzen duen funtzionarioa. Epaimahaikideak: bi zinegotzi.

ESKAINTZA EREDUA. Eskaintzak baldintza agirian agertzen den ereduan aurkeztuko dira.

Samaniego, 2012ko urtarrilaren 20a.– Alkatea, CRISTOBAL ZUÑEDA BERGANZO.

## ADMINISTRACIÓN LOCAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE ÁLAVA II

### Municipios

#### IRURAIZ-GAUNA

390

**Aprobación inicial de la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.**

Este Ayuntamiento en sesión celebrada el día 30 de noviembre de 2011, acordó la modificación de la Ordenanza Fiscal reguladora del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica.

Lo que, de conformidad con lo establecido en el artículo 16 de la Norma Foral 41/1989 de 19 de julio Reguladora de las Haciendas Locales, se hace público, y se abre un plazo de exposición pública de treinta días, a contar del siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA a fin de que los interesados puedan examinar los expediente y presentar, en su caso, las reclamaciones y sugerencias que consideren oportunas, considerándose este acuerdo como definitivamente aprobado en caso de no haberse presentado reclamaciones al respecto.

En Azilu, a 19 de enero de 2012.– El alcalde, FERNANDO PÉREZ DE ONRAITA ORTIZ.

#### SAMANIEGO

388

**Contratación, por el sistema de procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación para el arrendamiento del bar municipal sito en la Casa de Cultura.**

El Ayuntamiento Pleno en sesión celebrada el día 20 de enero de 2012 acordó aprobar el expediente de contratación, por el sistema de procedimiento abierto con varios criterios de adjudicación, para el arrendamiento del bar municipal sito en la Casa de Cultura, conforme a las siguientes condiciones:

OBJETO DEL PROCEDIMIENTO. Constituye el objeto del procedimiento el arrendamiento del bar municipal sito en la Casa de Cultura en Calle Las Escuelas número 2.

TIPO DE LICITACIÓN. La renta del local será de 800 euros, al mes, al alza.

DURACIÓN DEL CONTRATO. La duración del contrato será de dos años, a contar desde la fecha de su firma, prorrogable por otros dos años.

FIANZAS. No se presentará fianza provisional, y la fianza definitiva será de 3000 euros.

EXPOSICIÓN DEL EXPEDIENTE. En la Secretaría del Ayuntamiento en horario de oficina.

PRESENTACIÓN DE PROPOSICIONES. Las proposiciones se presentarán en la Secretaría del Ayuntamiento en horas de oficina de 10 a 13 horas, durante el plazo de quince días naturales, contados desde el siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOTHA. Si el último día fuera sábado o festivo se trasladara al siguiente hábil.

APERTURA DE PROPOSICIONES. La apertura del sobre B (documentos generales) tendrá lugar en la Casa Consistorial, en acto público, a las 12 horas del siguiente hábil laboral siguiente al día de terminación del plazo de presentación de proposiciones.

La apertura del sobre A (proposición económica), tendrá lugar a las 13 horas en el mismo lugar y día de la apertura del sobre B.

PERSONAS QUE COMPONEN LA MESA. El Alcalde o miembro de la Corporación en quien delegue, y el Secretario del Ayuntamiento o funcionario en quien delegue; vocales, dos concejales.

MODELO DE PROPOSICIÓN. Las proposiciones se ajustarán al modelo que figura en el pliego de condiciones.

Samaniego, 20 de enero de 2012.– El alcalde, CRISTOBAL ZUÑEDA BERGANZO.